

UDAL ADMINISTRAZIOA

7

ADMINISTRACIÓN MUNICIPAL

ASTIGARRAGAKO UDALA

Iragarkia

Arazuko informazio publikorako epea inolako erreklamazio eta oharpenik aurkeztu gabe igaro ondoren, finko eta behin beti-koa egin da, 2014ko martxoaren 27an Udala osoko bilkurak hartutako hasierako erabakia, hain zuzen «Udalaren ingurumen txostenaren» edukia eta «Udalaren ingurumen deklarazioko» prozedura arautzen duen Ordenantza arautzaileari buruzkoa.

Astigarraga, 2014ko uztailaren 16a.—Andoni Gartzia Arruabarrena, alkatea. (7074)

«UDALAREN INGURUMEN TXOSTENAREN» EDUKIA ETA «UDALAREN INGURUMEN DEKLARAZIOKO» PROZEDURA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

ZIOEN AZALPENA

2009ko urriaren 20ko Diputatu Kontseiluaren erabaki bidez onartu zen Astigarragako Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren Testu Bategina (2010eko urtarrilaren 22ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA), eta horri esker, udalerraren hirigintza-garapenerako legezko erreferentzia den erreminta eskuratu zuen udalerririk berak.

Plan Nagusi horretan «udalaren ingurumen-txosten» bat lantzeko premia aurreikusten da lurzoru ez-urbanizagarriko erabilera eta jardura jakin batzuetarako (Arau Orokorrak: 1.2.3 artikulua. Eraikuntzako araubide orokorra eta erabilera globaleko guneen erabilera), baita Hirigintza Jarduerarako Eremu jakin batzuen garatzeko plangintzarako ere, eta Astigarragako Udalarik dagokio hori gainbegiratzeko eta onartzea.

Astigarragako Udalak uste du beharrezkoa dela –segurtasun juridikoa tarteko– udalaren ingurumen-txostenen gutxienezko araudia eta jarraitu beharreko prozedura arautzea, administratuek jakin dezaten Administrazioak zer eskatuko duen lurzoru ez-urbanizagarrian erabilera eta jardura jakin batzuk baimendu aurretik edo garatzeko plangintzako tresna bat behin betiko onartu aurretik.

Horregatik, Astigarragako Udalak bermatu nahi du txostenaren edukia egokia dela lortu nahi den helbururako, ingurumenean izan ditzakeen ondorio esanguratsuak behar bezala ebaluatuta.

Dena dela, Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren Testu Bategina ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua indarrean zegoela onartu zen behin betiko, eta prozedura hori bete behar zuten xedapen horren 3.1 eta 3.2 artikuluan bildutako plan eta programek.

2012ko urriaren 16an egindako Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluan onartu zen planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua.

Xedapen horren 5.1 artikuluan honako hau ezartzen da:

«1. Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen I A eranskinaren 9. paragra-

AYUNTAMIENTO DE ASTIGARRAGA

Anuncio

Transcurrido el plazo de información pública reglamentaria sin que se haya presentado reclamación, ni observación alguna, se ha elevado a definitivo el acuerdo inicial adoptado en sesión plenaria celebrada el 27 de marzo de 2014, sobre la Ordenanza reguladora del contenido del «informe ambiental municipal» y del procedimiento de «declaración ambiental municipal», publicándose el texto íntegro.

Astigarraga, a 16 de julio de 2014.—El alcalde, Andoni Gartzia Arruabarrena. (7074)

ORDENANZA REGULADORA DEL CONTENIDO DEL «INFORME AMBIENTAL MUNICIPAL» Y DEL PROCEDIMIENTO DE «DECLARACIÓN AMBIENTAL MUNICIPAL»

EXPOSICION DE MOTIVOS

Por acuerdo del Consejo de Diputados de fecha 20 de octubre de 2009, se aprobó el Texto Refundido del Plan General de Ordenación Urbana de Astigarraga (BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa de fecha 22 de enero de 2010), por lo que el municipio se dotó de la herramienta que sirve de referencia legal para el desarrollo urbanístico del municipio.

En este Plan General se prevé, la necesidad de elaborar un «informe ambiental municipal» para determinados usos y actividades en suelo no urbanizable (Normas Generales: Artículo 1.2.3. Régimen general de edificación y uso de las zonas de uso global); así como para el planeamiento de desarrollo de determinadas Áreas de Intervención Urbanísticas, correspondiendo al Ayuntamiento de Astigarraga su supervisión y aprobación.

El Ayuntamiento de Astigarraga considera necesario –por seguridad jurídica- regular el contenido mínimo de los informes ambientales municipales y el procedimiento a seguir, para que los administrados tengan conocimiento de lo que la Administración va exigir con carácter previo a autorizar determinados usos y actividades en suelo no urbanizable o a aprobar definitivamente un instrumento de planeamiento de desarrollo.

Por ello, el Ayuntamiento de Astigarraga quiere garantizar que el contenido del informe sea adecuado al objetivo que se pretende perseguir, evaluando adecuadamente los posibles efectos significativos sobre el medioambiente.

Ahora bien, el Texto Refundido del Plan General de Ordenación Urbana se aprobó definitivamente estando vigente el Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regulaba el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental, sometiéndose a dicho procedimiento los planes y programas recogidos en el Artículo 3.1 y 3.2 de dicha disposición.

Por Consejo de Gobierno Vasco en sesión celebrada el día 16 de octubre de 2012, se procedió a la aprobación del Decreto 212/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas.

En el Artículo 5.1 de dicha disposición se establece lo siguiente:

«1. Se someterán a evaluación ambiental estratégica, por decisión motivada y pública del órgano ambiental, cuando se

foan jasotako planek eta programek ingurumen-ebaluazio estrategikoa jaso beharko dute, ingurumen-organoak hartutako erabaki arrazoitu eta publiko bidez, betiere ingurumenean eragin nabarmenak izan ditzaketela ondorioztatzen bada».

211/2012 Dekretuaren azken xedapenen arteko lehenean, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen I. Eranskinaren A atala aldatu zen, eta 7. idatz-zatia erantsi. Honako hau dio idatz-zati horrek:

«7. Ingurumenean ondorio nabarmenak izan ditzaketen aurreko planen aldaketak».

Ingurumenaren gaineko eragin nabarmenak honako kasu hauetan izan ditzaketela ulertzen da:

«a) Ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzea legezko betebeharraren duten egitasmoak bihar-etzi baimentzeko esparrua zehazten dutenean. Plan edo programa batek legezko betebeharraren duten egitasmoak bihar-etzi baimentzeko esparrua zehazten duela joko da honako kasu hauetan: proiektuen kokaleku, ezaugarri, neurri edo funtzionamenduari buruz –besteak beste– irizpideak edo baldintzak ezartzen dituztenean; edo proiektuen ingurumen-eraginaren ebaluazioari buruzko legerian edo Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko legeria orokorrean zehazten diren kategorietako bati dagozkion proiektuetarako baimenak nola emango diren berariaz eta zehaztasunez ezartzen dituztenean.

b) Zuzenean edo zeharka, Natura 2000 Sareko eremu bati era nabarmenean eragitea gerta daitekeenean, eta, hori dela-eta, Ondare Naturalari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean horientzat ezarritako araudiaren arabera ebaluazioa behar denean.

c) Ondare naturalari eta biodibertsitateari buruzko oinarritzeko legeria edo Euskal Autonomia Erkidegoko natura zaintzeko legeria aplikatuz emandako arau-xedapen orokorrek edo nazioarteko hitzarmenek eragindako ingurumen-babeserako erregimenen bat duten eremuetan eragiten dituztenean».

Azken batean, aztertzen ari garen kasu honetan, gerta liteke Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren arabera plangintza-tresna xehatu batek udalaren ingurumen-txostenak ezarritakoa bete behar izatea, eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretua aplikatuta ingurumen-ebaluazio estrategikoa bete behar izatea. Hori horrela, ordenantza honetan, kasu horiei gagozkiela, ingurumen-txostena ez dela beharrezkoa arautzen da, prozeduran bikoiztasuna saihesteko.

Era berean, erabilera edota jarduera jakin batek sinplifikatutako edo individualizatutako ingurumen-inpaktuko ebaluazio-prozedura bat bete behar duen kasuetan, beharrezkoa izango da udalaren ingurumen-txostena.

Horri dagokionez, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesteko 3/1998 Legeak eskumena ematen diote toki-administrazioari hirigintza- eta ingurumen-lizentziak izapidetu eta emateko, eta garapeneko plangintza izapidetu eta behin betiko onartzeko.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesteko 3/1998 Legearen 87. artikulua ezartzen duenez, toki-erakundeek, ingurumen-arloan ditzuten eskudantziak egikarituta, dagozkion ingurumeneko udal-ordenantzak onartu beharko dituzte.

Lege-xedapen horren 34. artikulua zehazten du –ingurune atmosferikoa babesteko politikaren helburuak betetzeko– udal-erriek ordenantzak emango dituztela, eta lurralde-plangintzako beren tresnetara gaineratuko dituztela kalitate-helburuak, muga-balioak eta alerta-atariak, eta murrizketa-neurriak ere gaineratu ahaliko dituztela kutsadura-maila handiak erakutsi ditzuten lurzoruen erabileran, emisio-iturri berrien ezarpena ere mugatuta.

determine que pueden tener efectos significativos sobre el medio ambiente, los planes y programas recogidos en el apartado 9 del anexo I A de la Ley 3/1998 de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco».

En la Disposición Final primera del Decreto 211/2012, se modifica el apartado A del Anexo I de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, incluyéndose en el mismo, el apartado 7 que señala lo siguiente:

«7. Modificaciones de los planes anteriores que puedan tener efectos significativos sobre el medio ambiente».

Entendiéndose que puede inferirse efectos significativos sobre el medio ambiente, en los siguientes supuestos:

«a) Cuando establezcan el marco para la futura autorización de proyectos legalmente sometidos a evaluación de impacto ambiental. Se entiende que un plan o programa establece el marco para la autorización en el futuro de proyectos legalmente sometidos a evaluación de impacto ambiental, cuando contenga criterios o condicionantes, con respecto, entre otros, a la ubicación, las características, las dimensiones o el funcionamiento de los proyectos o que establezcan de forma específica e identificable como se van a conceder las autorizaciones de los proyectos que pertenezcan a alguna de las categorías enumeradas en la legislación sobre evaluación de impacto ambiental de proyectos o en la legislación general de protección del medio ambiente del País Vasco.

b) Cuando, puedan afectar directa o indirectamente de forma apreciable a un espacio de la Red Natura 2000, requiriendo por tanto una evaluación conforme a su normativa reguladora establecida en la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad.

c) Cuando afecten a espacios con algún régimen de protección ambiental derivado de convenios internacionales o disposiciones normativas de carácter general dictadas en aplicación de la legislación básica sobre patrimonio natural y biodiversidad o de la legislación sobre conservación de la naturaleza de la Comunidad Autónoma del País Vasco».

En definitiva, para el caso concreto que nos ocupa, puede darse el supuesto de que el Plan General de Ordenación Urbana someta a informe ambiental municipal un instrumento de planeamiento pormenorizado, y en aplicación del Decreto 211/2012 de 16 de octubre, deberá someterse a la evaluación ambiental estratégica. Por lo que en la presente Ordenanza, en estos supuestos, se regula innecesario el informe ambiental, para evitar duplicidad en el procedimiento.

Igualmente, en los supuestos en los que un uso y/o actividad concreta, esté sometido al procedimiento de evaluación de impacto ambiental simplificada o individualizada, será innecesario el informe ambiental municipal.

A este respecto, la Ley 2/2006 del Suelo y Urbanismo del País Vasco y la Ley 3/1998, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, otorgan competencia a la administración local para la tramitación y concesión de las licencias urbanísticas y medio ambientales, y para la tramitación y aprobación definitiva del planeamiento de desarrollo.

Por otro lado, el Artículo 87 de la Ley 3/1998, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco establece que los entes locales, en el ejercicio de sus atribuciones en materia ambiental, deberán aprobar las correspondientes ordenanzas municipales de medio ambiente.

El Artículo 34 de dicha disposición legal, -con el fin de cumplir los fines de la política de protección del medio atmosférico-, determina que los municipios procederán a la promulgación de ordenanzas, así como a la incorporación a sus instrumentos de planificación territorial de los objetivos de calidad, valores límite y umbrales de alerta, pudiendo incorporar medidas de restricción en la utilización de suelos donde se hayan observado altos niveles de contaminación y limitando así mismo la implantación de nuevas fuentes emisoras.

Azken batean, «udalaren ingurumen-txostenak» bildu beharreko gutxieneko edukia eta udalaren ingurumen-deklaraziorako jarraitu beharreko prozedura arautzen ditu ordenantza honek.

1. KAPITULUA

APLIKAZIO EREMUA ETA ARAU OROKORRAK

1. artikulua. Aplikazio-eremua.

1. Astigarragako udalerrian da aplikatzekoa ordenantza hau, Astigarragako Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren Testu Bategin Egokituak «udalaren ingurumen-txosten» bat lantzea eskatzen duen kasuetan.

2. Estatuko eta autonomia-erkidegoko legeriak bultzatuta ingurumen-ebaluzioko prozedura bete beharko duten jardueraproiektuek eta plangintza garatzeko tresnek ez dute zertan aurkeztu udalaren ingurumen-txostena.

2. artikulua. Xedea.

Ordenantza honek honako xede hauek ditu:

1. Proiektua edo garatzeko plangintza onartzeko eskuduna den udal-agintaritzak emandako Udalaren Ingurumen Deklarazioaren prozedura eta edukia arautzea.

2. Proiektuaren sustatzaileak aurkeztu beharreko «Udalaren Ingurumen Txostenaren» edota hura betetzeko eskatzen den eremu bakoitzaren garapeneko plangintzaren gutxieneko edukia ezartzea.

2. KAPITULUA

UDALAREN INGURUMEN DEKLARAZIOA LORTZEKO PROZEDURA

3. artikulua. «Udalaren Ingurumen Deklarazioaren» eskaera eta «Udalaren Ingurumen Txostenaren» gutxieneko edukia.

a. «Udalaren Ingurumen Deklarazioaren» eskaerarekin batera, «Udalaren Ingurumen Txostena» aurkeztu beharko da, eta honako kapitulu hauek bildu beharko ditu gutxienez:

1. Jardun-esparrua eta Hirigintza Jarduerarako Eremua antolatze eta garatzeko plangintzaren helburuen deskribapena.

1.1. Jardun-esparruaren deskribapena eta planaren edo proiektuaren denbora-hedadura.

1.2. Planaren edo proiektuaren helburuen azalpena, ingurumen-alarreko helburuak espresuki adierazita.

1.3. Planaren edo proiektuaren antolamenduan edota garapenean bildutako proposamen edo jardueren laburpena.

1.4. Plangintza orokorretik datozen norabide eta irizpideen hausnarketa, integrazioa eta garapena helburutzat duten zehaztapenen laburpena.

2. Plan edo proiektuaren eraginpean hartutako eremua azterketa, diagnostikoa eta balioespina, ingurumenari dagokionez.

2.1. Planaren edo proiektuaren antolamenduak edota garapenak eraginpean har ditzakeen ingurumen-alderdiaren osagaiak identifikatzea, hala nola biodibertsitatea, flora, fauna, gea, lurzorua, ura, airea, klima-faktoreak, arrisku natural eta teknologikoak, kultura-ondarea, osasun publikoa, paisaia eta abar, baita faktore horien guztien arteko erlazioa ere.

2.2. Inguruko ingurumen-baliabide baliotsuen identifikazioa. Eremu garrantzitsuen zehaztapena kontserbazioaren,

En definitiva, la presente Ordenanza regula el contenido mínimo que debe contener el «informe ambiental municipal» y el procedimiento a seguir para la declaración ambiental municipal (D.A.M).

CAPÍTULO 1

AMBITO DE APLICACION Y REGLAS GENERALES

Artículo 1. *Ámbito de aplicación.*

1. Esta ordenanza es de aplicación en el término municipal de Astigarraga, en los supuestos en los que el Texto Refundido Adaptado del Plan General de Ordenación Urbana de Astigarraga exige la elaboración de un «informe ambiental municipal».

2. Quedan excluidos de la obligatoriedad de presentar informe ambiental municipal, aquellos proyectos de actividad e instrumentos de planeamiento de desarrollo, que la Legislación estatal y autonómica los sometan al procedimiento de evaluación ambiental.

Artículo 2. *Objeto.*

El objeto de la presente ordenanza es:

1. Regular el procedimiento y contenido de la «Declaración Ambiental Municipal (DAM) emitida por la autoridad municipal competente para la aprobación del proyecto o del planeamiento de desarrollo.

2. Establecer el contenido mínimo del «Informe Ambiental Municipal» que deberá ser aportado por el promotor del proyecto y/o del planeamiento de desarrollo de cada una de las áreas en las que se exige su cumplimentación.

CAPÍTULO 2

PROCEDIMIENTO PARA OBTENER LA DECLARACIÓN AMBIENTAL MUNICIPAL (DAM)

Artículo 3. *Solicitud de la «Declaración Ambiental Municipal (DAM)» y contenido mínimo del «Informe Ambiental Municipal».*

a. La solicitud de la «Declaración Ambiental Municipal (DAM)» deberá de acompañarse de un «Informe Ambiental Municipal» que contendrá al menos los siguientes capítulos:

1. *Ámbito de actuación y descripción de los objetivos del planeamiento para la ordenación y desarrollo del Área de Intervención Urbanística.*

1.1. Descripción del ámbito de actuación y alcance temporal del plan o proyecto.

1.2. Exposición de los objetivos del plan o proyecto, con mención expresa a los objetivos de índole ambiental.

1.3. Resumen de las propuestas o actuaciones contenidas en la Ordenación y/o desarrollo del plan o proyecto.

1.4. Resumen de las determinaciones que tienen por objeto la consideración, integración y desarrollo de las directrices y criterios procedentes del planeamiento general.

2. *Análisis, diagnóstico y valoración ambiental del ámbito afectado por el plan o proyecto.*

2.1. Identificación de las variables de la componente ambiental que puedan verse afectadas por la ordenación y/o desarrollo del plan, o el proyecto, tales como la biodiversidad, flora, fauna, gea, suelo, agua, aire, factores climáticos, riesgos naturales y tecnológicos, patrimonio cultural, salud pública, el paisaje, etc., así como la interrelación entre todos esos factores.

2.2. Identificación de los recursos ambientales valiosos del entorno. Determinación de las áreas relevantes desde el

hauskortasunaren, berezitasunaren edo babes bereziaren ikuspuntutik.

2.3. Ingurunearen kalitatearen alderdiak balioestea legezko irizpideen edota beste hainbat faktorekin lotutako arabera, hala nola kalitatea, dibertsitatea, heldutasuna, bitxitasuna, naturaltasuna, adierazgarritasuna, hauskortasuna, egonkortasuna, landarearen egitura, produktibitatea, basabizitzaren garrantzia eta abar.

3. Planaren edo proiektuaren jardunen inpaktuaren identifikazioa eta balioespena.

3.1. Planaren edo proiektuaren jardunen ondorio posibleen identifikazioa eta balioespena, ingurumen-inpaktuaren iturri izan daitezkeenak, planean edo proiektuan proposatutako jardunen eta eraginpeko ingurumenaren elementu espezifikoaren arteko interakzioen azterketaren bidez. Hain justu, honakoa hauek zehaztuko dira:

– Baliabide naturalistikoaren galera, zuzeneko edo zeharkako afektazioagatik edo ekosistema, habitat eta espezie baliotsuen asalduragatik.

– Baliabide estetiko-kultural edo paisajistikoaren gaineko afektazioak, kontuan izanda paisaia baliotsuak daudela haien osagai naturalen eta haien erabileren integrazioaren ikuspuntutik, haien osadera estetiko eta haietatik eratorzen den atmosfera emozionala.

– Baliabide berriztagarrien eta ez-berriztagarrien gaineko afektazioak, kontsumo-proposamenetatik edo haien kalitatea aldatzea dakarten jardunetatik eratorritakoak.

– Hondakinen sorkuntza eta kutsaduraren gehikuntza.

– Giza osasunaren eta lasaitasun-baldintzen gaineko zuzeneko edo zeharkako eragina, eta hiri-ingurumenaren kalitatearen gainekoa (paisaia, ondarea, espazio librea, irisgarritasuna, eta abar).

– Produktibitate ekologiko eta nekazaritza-produktibitatearen galera, batez ere ingurune edafikoaren erabilera-gaitasunaren eta nekazaritza-ustiatzekiko afektazio-mailaren mende egonik.

– Kultura-ondarearekiko afektazioa.

4 Babes-neurri, neurri zuzentzaile eta konpentsazio-neurrien proposamena.

4.1. Eragin negatiboa duten proposamenen ingurumen-kostua saihesteko edo murrizteko eta ingurumen-ondorio positiboak dituztenen onurak maximizatzeko neurrien definizioa. Hainbat motatakoak izan daitezke:

4.1.1. Inpaktu esanguratsuenei buruzko babes-neurri eta neurri zuzentzaileak, helburutzat inpaktuak gertatzeko probabilitatea murriztea izango dutenak, baita elementu baliotsu edo kalteberen eta giza populazioaren inpaktu garrantzitsuetarako esposizioa saihestea ere.

4.1.2. Planaren proposamenez zuzenean mehatxatutako baliabide natural estrategikoak zaintzera bideratutako babes-neurriak (habitata, espezieak, paisaia, baliabide hidrikoak, ur-masak, hezeguneak, ondare geologikoa, eta abar).

4.1.3. Paisaia, mugikortasun eta irisgarritasuna hobetzeko neurriak, garatzeko plangintza edo proiektua paisaia integratzeko, landa-lurraren eta nekazaritza-egituraren erabilera tradizionalak mantentzeko, azpiegiturak eta eraikuntzak landa-ingurunera egokitzea eta abar.

4.1.4. Baliabide berriak sortzera bideratutako konpentsazio-neurriak, helburutzat aurreikusitako ingurumen-afektazioa arintzea dutenak.

4.1.5. Arestian adierazitako neurri guztien betetze- eta eraginkortasun-mailaren jarraipena egiteko adierazleen deskribapena.

punto de vista de la conservación, fragilidad, singularidad o especial protección.

2.3. Valoración de los diferentes aspectos de la calidad del medio en función de criterios legales y/o de calidad, diversidad, madurez, rareza, naturalidad, representatividad, fragilidad, estabilidad, estructura de la vegetación, productividad, importancia para la vida silvestre, etc.

3. Identificación y valoración de impactos de las diferentes actuaciones del plan o proyecto.

3.1. Identificación y valoración de los posibles efectos de las actuaciones del plan o proyecto, que pueden ser fuente de impactos ambientales, mediante el estudio de las interacciones entre las distintas actuaciones propuestas en el plan o proyecto y los elementos específicos del medio afectado. En concreto se detallarán:

– Pérdida de recursos naturalísticos, por afección directa, indirecta o perturbación de ecosistemas, hábitats y especies valiosos.

– Afecciones sobre recursos estético-culturales o paisajísticos, teniendo en cuenta la existencia de paisajes valiosos desde el punto de vista de la integración de sus componentes naturales y de usos, su composición estética y atmósfera emocional que se deriva de los mismos.

– Afecciones sobre recursos renovables y no renovables, derivados de propuestas de consumo o actuaciones que supongan una alteración de su calidad.

– Generación de residuos e incremento de la contaminación.

– Incidencia directa o indirecta sobre la salud humana y las condiciones de sosiego y sobre la calidad del medio ambiente urbano (paisaje, patrimonio, espacios libres, accesibilidad, etc.).

– Pérdida de la productividad ecológica y agraria, dependiendo fundamentalmente de la capacidad de uso del medio edáfico y del grado de afección a las explotaciones agrarias.

– Afección al patrimonio cultural.

4. Propuesta de medidas protectoras, correctoras y compensatorias.

4.1. Definición de medidas para evitar o reducir el coste ambiental de las propuestas con incidencia negativa y para maximizar los beneficios de aquellas otras con efectos ambientales positivos. Estas pueden ser de varios tipos:

4.1.1. Medidas protectoras y correctoras referentes a los impactos más significativos cuyo objeto será reducir su probabilidad de ocurrencia, así como para evitar la exposición de elementos valiosos o vulnerables y de la población humana a impactos significativos.

4.1.2. Medidas protectoras que se dirijan a conservar recursos naturales estratégicos amenazados directamente por las propuestas del plan (hábitats, especies, paisaje, recursos hídricos, masas de agua, zonas húmedas, patrimonio geológico, etc).

4.1.3. Medidas para mejorar el paisaje, la movilidad y accesibilidad, para integrar el planeamiento de desarrollo o el proyecto en el paisaje, para el mantenimiento de los usos tradicionales del suelo rústico y la estructura agraria, para la adaptación de las infraestructuras y construcciones al ambiente rural, etc.

4.1.4. Medidas compensatorias orientadas a generar nuevos recursos que pretendan paliar la afección ambiental prevista.

4.1.5. Descripción del conjunto de indicadores para realizar el seguimiento del grado de cumplimiento y efectividad de todas las medidas citadas anteriormente.

5. Dokumentazio grafikoa.

5.1. Planaren edo proiektuaren egitura-zehaztapenak eta, bereziki, inpaktuak eragin ditzaketen eta kokalekua lurraldean izan dezaketenak.

5.2. Lurraldearen ingurumen-azterketa zenbait geruza tematikotan.

5.3. Ingurumen-interes bereziko lurraldeko eremu eta baliabideak biltzen dituen kartografia.

5.4. Detektatutako inpaktu nagusien kokaleku espaziala.

5.5. Kokalekua lurraldean izan dezaketen babes-neurri, neurri zuzentzaile eta konpentsazio-neurriak islatzen dituen kartografia.

b. Udalaren Ingurumen Txostena zehatz-mehatz aurkeztuko da dokumentu bidez zein kartografikoki, proiektuaren edo garatzeko plangintzaren eskalaren arabera, ingurumen afektazio potentzialak ebaluatzeko nahikoa azterketa baliatuta.

c. Garrantzi berezia izango du inpaktuen identifikazioak eta balioespenak, baita babes-neurri, neurri zuzentzaile eta konpentsazio-neurrien diseinuak ere, baita dagokion zaintza-programak ere, hori ere ebaluatzeko nahikoa den xehetasun-eghiara egokituta egongo delarik.

d. Hasierako eskaerak «a» idatz-zatian adierazitako dokumentuak ez dituela biltzen egiaztatzen bada, sustatzaileari eskatuko zaio hamar egun baliaduneko epean nahitaezko dokumentuak ere aurkez ditzala, azaroaren 26ko 39/1992 Legearen 71. artikulua aurreikusitako ondorioekin.

4. artikulua. Ingurumen-txostenaren egilearen gaitasun teknikoa eta erantzukizuna.

1. Lanbide-kalifikazioei buruzko arauen eta goi-mailako hezkuntzaren arauaren arabera nahikoa gaitasun tekniko daukaten pertsonak egin beharko dituzte udalaren ingurumen-txostenak, eta ordenantza honen eskakizunak betetzeko beharrezko kalitatea izango dute. Horretarako, adierazitako ingurumen-azterlan eta -dokumentuek egilea edo egileak identifikatu beharko dute/dituzte, titulazioa eta, hala badagokio, araututako lanbidea adierazita. Gainera, amaiera-egunak eta egilearen sinadurak jasota beharko dute egon.

2. Dokumentu horien egileak edukiaren eta informazioaren fidagarritasunaren arduradun izango dira, salbu eta administrazioaren eskutik frogatzeko moduan jasotako datuei dago kienez.

5. artikulua. Udalaren Ingurumen Deklarazioaren izapidez erabilera eta jardueretarako.

1. Alkatetza izango da organo eskuduna «Udalaren Ingurumen Deklarazioa» emateko, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikulua, Toki Araubidearen arloko indarreko lege-xedapenen Testu Bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 24.e artikulua eta Toki Erakundearen Antolamendu Erregelamendua, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 41. artikulua xedatutakoaren arabera.

2. Honako kontsiderazio hauek bilduko ditu Udalaren Ingurumen Deklarazioak:

a) Ingurumena babesteko helburuei buruzko zehaztapenak, baita ingurumen-txostenaren ondorioen eta ingurumen-alderdiak kontuan hartu izan diren moduaren balioespen bat ere.

b) Udalaren ustez berriz definitu edo kendu beharreko jardunak, atari onargarria gairiditzen duen magnitudeko inpaktua eragiten dutelako.

5. Documentación gráfica.

5.1. Determinaciones estructurales del plan o el proyecto y, en especial, de aquellas actuaciones que pueden dar lugar a impactos y que puedan ser localizadas en el territorio.

5.2. Análisis ambiental del territorio en diferentes capas temáticas.

5.3. Cartografía conteniendo los ámbitos y recursos del territorio de especial interés ambiental.

5.4. Localización espacial de los principales impactos detectados.

5.5. Cartografía reflejando las medidas protectoras, correctoras y compensatorias que puedan ser localizadas en el territorio.

b. El Informe Ambiental Municipal se presentará de forma detallada tanto documental como cartográficamente de acuerdo a la escala del proyecto o del planeamiento de desarrollo, precisando de análisis suficientes para evaluar las potenciales afecciones ambientales.

c. Será de especial relevancia la identificación y valoración de impactos, así como el diseño de medidas protectoras, correctoras y compensatorias, y su correspondiente programa de vigilancia, que deberá también ser ajustado a la escala de detalle suficiente para la evaluación de la misma.

d. Si se comprobara que la solicitud de inicio no incluye los documentos señalados en el apartado «a» se requerirá al promotor para que, en un plazo de diez días hábiles, acompañe los documentos preceptivos, con los efectos previstos en el Artículo 71 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

Artículo 4. Capacidad técnica y responsabilidad del autor del informe ambiental.

1. El informe ambiental municipal deberán ser realizados por personas que posean la capacidad técnica suficiente de conformidad con las normas sobre cualificaciones profesionales y de la educación superior, y tendrán la calidad necesaria para cumplir las exigencias de esta ordenanza. Para ello, los estudios y documentos ambientales mencionados deberán identificar a su autor o autores indicando su titulación y, en su caso, profesión regulada. Además, deberá constar la fecha de conclusión y firma del autor.

2. Los autores de los citados documentos serán responsables de su contenido y de la fiabilidad de la información, excepto en lo que se refiere a los datos recibidos de la administración de forma fehaciente.

Artículo 5. Tramitación de la «Declaración Ambiental Municipal. (DAM), para usos y actividades.

1. El órgano competente para emitir la «Declaración Ambiental Municipal» será Alcaldía, de acuerdo con lo dispuesto por el Artículo 21 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, el Artículo 24.e del Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Local y, el Artículo 41 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales.

2. La DAM contendrá las siguientes consideraciones:

a) Especificaciones sobre objetivos de protección del medio ambiente, así como una valoración de las conclusiones del informe ambiental y de cómo las se han considerado los aspectos ambientales.

b) Actuaciones que en opinión municipal debieran ser redefinidas o suprimidas por suponer un impacto cuya magnitud es superior al umbral aceptable.

c) Babes-neurri, neurri zuzentzaile eta konpentsazio-neurrien proposamenak, baita proiektuaren ingurumen-zaintzako programa egiteko aginduak ere.

d) Egindako azterketa ikusita, antolamendu xehatuko tresna behin betiko onartu edo dagokion administrazio-organismoaren lizentzia eman aurretik, kasuan kasu, ingurumen-txostenera gaineratu beharreko informazioa eta dokumentazioa.

e) Egokitzen jotako beste oharpen batzuk.

f) Udalaren aldeko edo aurkako administrazio-ebazpena eta, hala badagokio, prozedurarekin jarraitzeko betiere bete beharreko baldintzak.

3. «Udalaren Ingurumen Deklarazioa» emandakoan, proiektuaren sustatzaileari helaraziko zaio, eta hark Udalaren Ingurumen Deklarazioaren zehaztapenak bildu beharko ditu jardueraproiektuan. Zehaztapen horiek biltzen ez badira, udal-lizentzia ukatuko da.

4. Udalari eskaera formalki aurkeztu zitzaionetik sei hilabete igaro eta erabaki behar duen organoaren esanbidezko ebazpenik eman ez bada, eta tartean eskatzaileak eragindako prozeduraren eteterik ez bada, Udalaren Ingurumen Deklarazioa aldeketzat hartuko da.

6. artikulua. Udalaren Ingurumen Deklarazioaren izapidezko garatzeko plangintzarako.

1. Udalaren Ingurumen Deklarazioa lortzeko udalaren ingurumen-txostena garatzeko plangintzaren hasierako onarpenarako aurkeztuko da.

2. Udalaren Ingurumen Deklarazioa –aldez aurrekoa zein behin betikoa– emateko organo eskuduna garatzeko plangintza onartzeko bera izango da.

3. Udalaren zerbitzu teknikoek txostena aztertutakoan, Udalaren Aldez aurreko Ingurumen Deklarazio bat emango da, eta honako kontsiderazio hauek bilduko ditu:

a) Ingurumena babesteko helburuei buruzko zehaztapenak, baita ingurumen-txostenaren ondorioen eta ingurumen-alderdiak kontuan hartu izan diren moduaren balioespen bat ere.

b) Udalaren ustez berriz definitu edo kendu beharreko jardunak, atari onargarria gairatzen duen magnitudeko inpaktua eragiten dutelako.

c) Babes-neurri, neurri zuzentzaile eta konpentsazio-neurrien proposamenak, baita planaren ondorioen gainbegiratzeko programa egiteko aginduak ere.

d) Egindako azterketa ikusita, planaren hasierako onarpena baino lehen ingurumen-txostenera, kasuan kasu, gaineratu beharko litzatekeen informazioa eta dokumentazioa.

e) Egokitzen jotako beste oharpen batzuk.

4. Garatzeko plangintzaren hasierako onarpenarekin batera jakinaraziko da Udalaren Aldez aurreko Ingurumen Deklarazioa.

5. Udalaren Behin betiko Ingurumen Deklarazioa lortzeko beharrezkoa izango da aldez aurreko deklarazioaren zehaztapenak gaineratzea.

6. Garatzeko plangintza ez da behin betiko onartuko Udalaren Behin betiko Ingurumen Deklarazioa lortzen den arte. Behin betiko Ingurumen Deklarazioa osorik gaineratu behar da garatzeko plangintzaren onarpena ebatzita.

7. artikulua. Udalaren Ingurumen Deklarazioaren indarraldia.

1. Plangintzaren edo proiektuaren udalaren ingurumen-deklarazioak indarraldia galduko du, eta ez ditu berezko dituen ondorioak eragingo proiektuaren edo jardueraren egikaritzea

c) Propuestas de medidas protectoras, correctoras y compensatorias, así como prescripciones para realizar el programa de vigilancia ambiental del proyecto.

d) A la vista del análisis realizado, información y documentación que, en su caso, debiera incorporarse al informe ambiental con carácter previo a la aprobación definitiva del instrumento de ordenación pormenorizada y /o al otorgamiento de la licencia por el órgano administrativo correspondiente.

e) Otras observaciones que considere oportunas.

f) Resolución administrativa municipal favorable o desfavorable y, si fuese preciso, el condicionado con que se otorga para continuar con el procedimiento.

3. Emitida la «Declaración Ambiental Municipal» se dará traslado de la misma al promotor del proyecto, que deberá de incluir las determinaciones de la DAM en el proyecto de actividad. En el supuesto de que no se incluyan dichas determinaciones se denegará la licencia municipal.

4. Transcurridos seis meses desde que se presentó formalmente la solicitud ante el Ayuntamiento sin haberse emitido resolución expresa por el órgano decisorio, y no mediando paralización del procedimiento imputable al solicitante, la DAM se considerará favorable.

Artículo 6. Tramitación de la «Declaración Ambiental Municipal» para el planeamiento de desarrollo.

1. El informe ambiental municipal para la obtención de la Declaración Ambiental Municipal se presentará para la aprobación inicial del planeamiento de desarrollo.

2. El órgano competente para la emisión de la Declaración Ambiental Municipal – tanto la preliminar como la definitiva – será el mismo que para la aprobación del planeamiento de desarrollo.

3. Analizado el informe por los servicios técnicos municipales se emitirá una Declaración Ambiental Municipal Preliminar, que contendrá las siguientes consideraciones:

a) Especificaciones sobre objetivos de protección del medio ambiente, así como una valoración de las conclusiones del informe ambiental y de cómo las se han considerado los aspectos ambientales.

b) Actuaciones que en opinión municipal debieran ser redefinidas o suprimidas por suponer un impacto cuya magnitud es superior al umbral aceptable.

c) Propuestas de medidas protectoras, correctoras y compensatorias, así como prescripciones para realizar el programa de supervisión de los efectos del plan.

d) A la vista del análisis realizado, información y documentación que, en su caso, debiera incorporarse al informe ambiental con carácter previo a la aprobación inicial del plan.

e) Otras observaciones que considere oportunas.

4. La Declaración Ambiental Municipal Preliminar se notificará junto con la aprobación inicial del planeamiento de desarrollo.

5. Para la obtención de Declaración Ambiental Municipal Definitiva será preceptivo incorporar las determinaciones de la declaración preliminar.

6. El planeamiento de desarrollo no se aprobará con carácter definitivo hasta la obtención de la Declaración Ambiental Municipal Definitiva. Debiendo incorporarse – de manera íntegra – la Declaración Ambiental Definitiva a la resolución de la aprobación definitiva del planeamiento de desarrollo.

Artículo 7. Vigencia de la declaración Ambiental Municipal.

1. La declaración ambiental municipal del planeamiento o proyecto perderá su vigencia y cesará en la producción de los efectos que le son propios si no se hubiera comenzado la ejecu-

pena hasten ez bada, edo plangintzako tresnaren kudeaketa bi urteko epean hasten ez bada, planaren behin betiko onarpene-
tik edo lizentzia eman zenetik zenbatzen hasita. Kasu horietan,
lortzeko izapidea hasi beharko du berriz ere sustatzaileak, salbu
eta deklarazioaren indarraldia luzatzea erabakitzen bada, ondo-
rengo idatz-zatietan aurreikusitakoari jarraiki.

2. Aurreko idatz-zatian adierazitako epeak independen-
teak dira lizentziak irautzeko ezarritako epeakiko eta plangin-
tza aldatzeko edo berrikusteko zehaztutako epeakiko.

3. Sustatzaileak udalaren ingurumen-deklarazioa luzatzea
eskatu ahalko du lehenengo idatz-zatian aurreikusitako epea
amaitu aurretik. Sustatzaileak egindako eskaerak aurreko idatz-
zatiko bi urteko epea bertan behera utziko du.

4. Eskaera aurkeztutakoan, udalaren ingurumen-deklara-
zioa luzatzea erabaki ahalko du udalak ingurumen-txostena egi-
teko baliatutako funtsezko elementuetan funtsezko aldaketarik
izan ez bada, eta beste urtebetez luzatuko du. Epe hori plangin-
tza edo proiektua egikaritu gabe igarotakoan, udalaren inguru-
men-inpaktuko ebaluazio-prozedura berriz ere hasi beharko du
sustatzaileak.

5. Eskaera hori aurkeztu den egunetik zenbatzen hasi
eta hiru hilabeteko epean ebatziko du udalak luzatzeko
eskaera. Epea ingurumen-organoak udalaren ingurumen-dekla-
razioaren indarraldia luzatzeari buruz ebatzi gabe igarotakoan,
baietsizat joko da luzatzeko eskaera.

8. artikulua. «Udalaren Ingurumen Deklarazioaren» baldin- tzen aldaketa.

1. Udalaren ingurumen-deklarazioaren baldintzak aldatu
ahalko dira honako zirkunstantzia hauetako bat gertatzen
denean:

a) Udalaren ingurumen-deklarazioan ezarritako baldintzak
betetzeko funtsezko eragina duen araudi berria indarrean has-
tea.

b) Udalaren ingurumen-deklarazioak baldintza batzuk eza-
rri eta baldintza horiek betetzea ezinezkoa bada edo beharrez-
koa ez bada, aldatzeko eskaera egiteko unean erabilgarri dau-
den teknika berri eta hobek erabiltzeak ingurumena hobeto
eta egokiago zaintzea ahalbidetzen duelako, udalaren inguru-
men-txostenak ezarritakoa bete behar duen hasierako proiektu-
ari edo jardunari dagokionez.

c) Udalaren ingurumen-deklarazioaren betetzearen jarrai-
penean prebentzio-neurri, neurri zuzentzaile edo konpentsazio-
neurriak eskasak, ez-beharrezkoak edo ez-eraginkorrak direla
ikusten denean.

2. Ingurumen-inpaktuko deklarazioaren baldintzak alda-
tzeko prozedura ofizioz edo sustatzaileak eskatuta hasi ahalko
da.

9. artikulua. Tasen ordainketa.

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Zergei buruzko mar-
txoaren 8ko 2/2005 Foru Arauan eta urtarrilaren 11ko 2/1990
Foru Arauan ezarritakoaren arabera, tasa bat ordaindu beharko
zaio udalari udalaren ingurumen-deklarazioa izapidetzeagatik.

2. Dagozkion ordenantza fiskaletan finkatuko da tasaren
zenbatekoa.

AZKEN XEDAPENA

Testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den
egunaren biharamunetik zenbatzen hasi eta 15 egunera hasiko
da indarrean ordenantza hau.

ción del proyecto o actividad, o la gestión del instrumento de pla-
neamiento en el plazo de dos años desde la aprobación defini-
tiva del plan o desde la concesión de la licencia. En tales casos,
el promotor deberá iniciar nuevamente el trámite de obtención,
salvo que se acuerde la prórroga de la vigencia de la declaración
en los términos previstos en los siguientes apartados.

2. Los plazos indicados en el apartado anterior, son inde-
pendientes de los establecidos para la caducidad de las licen-
cias y de los plazos determinados para la modificación o revi-
sión del planeamiento.

3. El promotor podrá solicitar la prórroga de la vigencia de
la declaración ambiental municipal antes de que transcurra el
plazo previsto en el apartado primero. La solicitud formulada
por el promotor suspenderá el plazo de los dos años del apar-
tado anterior.

4. Presentada la solicitud, el Ayuntamiento podrá acordar
la prórroga de la vigencia de la declaración ambiental municipal
en caso de que no se hayan producido cambios sustanciales en
los elementos esenciales que sirvieron para realizar el informe
ambiental, ampliando su vigencia por un año adicional. Tran-
scurrido este plazo sin que se haya procedido la ejecución
del planeamiento o del proyecto, el promotor deberá iniciar nue-
vamente el procedimiento de evaluación de impacto ambiental
municipal.

5. El Ayuntamiento resolverá sobre la solicitud de prórroga
en un plazo de tres meses contados desde la fecha de presen-
tación de dicha solicitud. Transcurrido el plazo sin que el órgano
ambiental haya resuelto sobre la prórroga de la vigencia de la
declaración ambiental municipal se entenderá estimada la soli-
citud de prórroga.

Artículo 8. Modificación de las condiciones de la «Declaración Ambiental Municipal».

1. Las condiciones de la declaración ambiental municipal
podrán modificarse cuando concurra alguna de las siguientes
circunstancias:

a) La entrada en vigor de nueva normativa que incida sus-
tancialmente en el cumplimiento de las condiciones estableci-
das en la declaración ambiental municipal.

b) Cuando la declaración ambiental municipal establezca
condiciones cuyo cumplimiento se haga imposible o innecesario
porque la utilización de las nuevas y mejores técnicas disponi-
bles en el momento de formular la solicitud de modificación per-
miten una mejor y más adecuada protección del medio
ambiente, respecto del proyecto o actuación inicialmente some-
tido a informe ambiental municipal.

c) Cuando durante el seguimiento del cumplimiento de la
declaración ambiental municipal se detecte que las medidas
preventivas, correctoras o compensatorias son insuficientes,
innecesarias o ineficaces.

2. El procedimiento de modificación de las condiciones de
la declaración de impacto ambiental podrá iniciarse de oficio o
a solicitud del promotor.

Artículo 9. Abono de tasas.

1. De acuerdo con lo dispuesto en la Norma Foral 2/2005
de 8 de marzo General Tributaria del Territorio Histórico de
Gipuzkoa y en la Norma Foral 2/1990 de 11 de enero, se
deberá de abonar al Ayuntamiento una Tasa por la tramitación
de la declaración ambiental municipal.

2. La cuantía de la tasa se fijará en las correspondientes
Ordenanzas Fiscales.

DISPOSICIÓN FINAL

Esta Ordenanza entrará en vigor a los 15 días a contar
desde el día siguiente de su publicación del texto íntegro en el
BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.